

ZORION

1 DENAK

ZORION, ETXE HONTAKO DE-NOI!
OLES EGITERA GATOZ,
ATERIK ATE OHITURA ZAHARRA
AURTEN BERRITZEKO ASMOZ.
EZ GAUDE OSO ABERATS DIRUZ,
EZTA ERE OINETAKOZ.
BAINA EZTARRIZ SANO GABIL-TZA,
TA KANTA NAHI DEGU GOGOZ.

2 DENAK

SANTA AGEDA BEZPERA DE-GU
EUSKAL HERRIKO EGUNA,
ETXE GUZTIAK KANTUZ POZTE-KO
AUKERATUA DEGUNA.
SANTA MAITEA GAUR HARTU DE-GU
GURE BIDEKO LAGUNA.
HAREN LAGUNTZAZ BETE GENTZAKE
EGUN HONTAKO JARDUNA.

LH3-LH5

MENDI TONTORRAK ELURREZ ZU-RI,
ATAI ALDEAN LAIO-TZA.
ETXE HONTAKO NAGUSI JAU-NAK,
URREZKOA DU BIHOTZA.

1, 2, 3...

IIIIEEEEUUUUUUUUUP!!!!!!!!!!!!!!!

SANTA AGEDAK KENDU DIGU GAUR
ESKEAN HASTEKO LOTSA,
DIRURIK EZ BADA, BERDIN ZAI-GU
GIZENDUTAKO BILDOTSA.

LH4

ZELAI ERDIAN LOREAK AR-GI,
LARROS, KRABELIN TA LILI.
ETXE HONTAKO ETXEKOANDRE-AK
AMA BIRJINA DIRUDI.
ETXE HONTAKO URDAIAZ-PI-KO
ASKO, KAKOTIK ZINTZILIK,
TA LUKAINKA GORRIAK UGA-RI
POL TSA BETETZEKO GURI.

LH6

ITZAL BERRIA ZABALDU DI-GU
ATARI AURREKO INTXAURRAK
HABE BERRIAK SENDOTU DI-TU
ETXEKO SAKAPE ZAHA-RRAK
BIKOTE GAZTEAK NEUR-TU
DITUZTE BERE INDARRAK
ARTO TA GARIZ BETEKO DI-RA
AURTEN MANDIO BAZTARRAK.

SANTA AGEDA

*SANTA AGEDA AGEDA,
BIHAR DA SANTA AGEDA,
BIHAR DA SANTA AGEDA ETA
GAUR HAREN BEZPERA GAUA.
(BIS)*

OLES ETA OLES ETXEKOAK
JOTZEN DITUT NIK GAUR ATEAK
JOTZEN DITUT NIK ATEAK ETA
KONTSOLA BEDI GENDEA.

SANTA AGEDA AGEDA... (bis)

HORRA HOR GOIAN ITURRI,
URA TXORROTIK ERORI
ETXE HONTAKO ETXEKO
ANDREAK
AMA BIRJINA DIRUDI.

SANTA AGEDA... (BIS)

1-2-3...

IEEEEEUUUUP!!!!!!